



TOKIKO AGENDA 21. ITSASONDO 2012-2013

ITSASONDOKO IRAUNKORTASUN TXOSTENA

Ekintza Plana

2013ko azaroa

AURKIBIDEA

1. SARRERA ETA AURREKARIAK
2. EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA
 - 2.1. Prozesuaren helburuak eta baldintzak
 - 2.2. Prozesuaren deskribapen orokorra
 - 2.3. Antolaketa
3. HERRIAREN ARGAZKIA: ONDORIOAK ETA ERRONKAK
 - 3.1. Biztanleria
 - 3.2. Jarduera ekonomikoa eta enplegua
 - 3.3. Oinarrizko zerbitzuak eta azpiegiturak
 - 3.4. Ingurune Naturala
 - 3.5. Mugikortasuna, Garraioa, Irisgarritasuna
 - 3.6. Ingurumen bektoreak
 - 3.7. Komunikazioa, Sentsibilizazioa eta Parte-hartzea
4. EKINTZA-PLANA
 - 4.1. Ikuspuntu Estrategikoa
 - 4.2. Aalborg+10 konpromisoak
 - 4.3. Ekintza-Planaren Egitura
 - 4.4. Ekintza-Planaren oinarrizko ezaugarriak
 - 4.5. Lerro Estrategikoak, Programak eta Ekintzak

1. SARRERA ETA AURREKARIAK

Itsasondo 2004an hasi zen Agenda 21 prozesuarekin martxan, eskualdeko gainerako 17 udalerriekin batera UDALTALDE 21 GOIERRI lan-taldearen barruan. Lan honen emaitza moduan, 2005ean onartu zuen Itsasondoko Udalbatzak Itsasondoko Agenda 21eko lehenengo Ekintza Plana. Plan honek Udalaren iraunkortasun mailako helburuak zehaztu eta bide bat martxan jartzea ekarri zuen.

Ordutik eta 2009. urterarte Udala, Ekintza-Planean garatutako ekintzak aurrera eramateko lanean aritu zen. Ekintza- Plana garatzearekin batera, Tokiko Agenda 21ak Ebaluatu eta Jarraitzeko programetan ere parte-hartu zuen Itsasondoko Udalak, planaren exekuzio maila eta iraunkortasun adierazleen kalkulua burutu zelarik.

2005-2009 urte hauetan orduko plana aztertu eta ebaluatuta, **71 ekintza jasotzen zituen Ekintza-Planetik 7 geratzen ziren hasi gabe**. Hau honela, 2010. urtean Udalak herritarrekin batera burutu zen hasunarketa bati ekin zion. Ondorio moduan, Herri Plan berri baten beharra atzeman zen, herritarren parte-hartzearekin batera bideratuko zen Herri Plan baten beharra.

Itsasondoko Agenda 21eko lehenengo Ekintza Plana diseñatzerakoan izandako esperientziatik abiatuta, Udalak bideratu duen Herri Plan berri honen garapena Agenda 21ak ezartzen duen metodologiarekin bideratzea adostu zuen. Metodologia honek, herritarren parte-hartzeaz osatutako Herri Plan bat gauzatzeaz gain, parte-hartze kultura sustatu, herri kohesio eta identitatea indartzea ahalbidetzen duelako. Era berean, behin Plana esku artean izanda bere jarraipen eta ebaluaketarako dauden tresnak erabiliz, Herri Plan erabilgarri, praktikoa eta ebaluagarri bat izateko aukera dago.

Aurrez aipaturiko arrazoiak medio Itsasondoko Udalak Agenda 21eko Ekintza Planaren berrikuspenari ekin dio, lehenengo hurratsak 2012ko maiatzaren hasieran bideratzen hasi garelarik.

Berrikuspen prozesu honi **Itsasondo Ekinez Egina 2012** izena eman diogu, proiektua erraz identifikatu eta ulertu ahal izatea helburu hartuta.

2. EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA

2.1. PROZESUAREN HELBURUAK ETA BALDINTZAK

Prozesu honekin lortu nahi izan dugun helburu nagusia honako hau da:

Helburu Orokorra: Itsasondoko Agenda 21eko Ekintza Plan berria herritarron artean diseinatuz, herri-identitatea indartu eta udalaren kudeaketa herritarren parte-hartzea nolakoa izan behar den zehaztea.

Era berean ondoren zehazten diren helburuei begira ere lan egin dugu prozesu hontan zehar:

- ✓ Udal kudeaketa errazteko tresna garatzea.
- ✓ Herritar guztiei parte-hartzeko aukera zabaltzea.
- ✓ Emakumeen parte-hartzea bultzatzea.
- ✓ Herritar berrien parte-hartzea lortzea.
- ✓ Partehartzean oinarritutako udal kudeaketa finkatzea.
- ✓ Udalak egiten dituen lanen inguruko informazioa zabaltzea.
- ✓ Udal ordezkari, udaleko langile eta herritarren arteko sarea osatzea.

2.2. PROZESUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

- **Prestaketa:** prozesua martxan jartzeko egin beharreko lanak zehaztuko ditugu. Atal honetan besteak, beste honako lan hauek burutuko dira:
- **Elkarrizketak burutzea:** herriko argazki ahalik eta osatuena lortzera begira, herritar ezberdinak elkarrizketatu dira etorkizunera begirako erronkak ere finkatu asmoz.
- **Herritarrekin bilerak:** 3 lan-taldetan banatuta (Ingurumena eta Hirigintza; Herri Bizitza eta Ongizatea) herriaren inguruko hausnarketa burutuko da, herriko hutsuneak aztertuz eta datozen urteetara begira garatu daitezkeen ekintzak proposatuz eta lehentasunak markatuz.

- **Udal barruko lanak:** herritarrekin eginiko bileretan jasotako ekarpenen bideragarritasuna aztertuko da udal teknikariek. Herritarren ekarpenak landu eta ordenatuko dira.
- **Parte-hartze metodologia zehaztea eta balorazioa:** Itsasondoko Udalean, bere funtzionamendurako, herritarren parte-hartzea nolakoa izan behar den landuko da fase honetan.
- **Bukaera:** prozesuaren emaitzak azaldu, prozesua baloratu eta egindako lana ospatuko dugu fase honetan.

2.3. ANTOLAKETA

Gune edo antolaketa eremu ezberdinak sortuko dira prozesuaren garapenerako. Gune bakoitzaren osaketa, eginkizunak eta funtzionamendua jarraian aurkezten dira:

TALDE ERAGILEA	
PARTAIDEAK	Udal ordezkari arduraduna/ak, herritar laguntzaile arduraduna/ak, komunikazio taldeko arduraduna, udal langilea, aholkularitza lan-taldea
EGINKIZUNAK	Prozesuaren gidaritza eramango du. Jarraipen zehatza egingo du, behar diren moldaketak eginez. Lanak koordinatuko ditu eta informazioa bildu eta emateaz arduratuko da
FUNTZIONAMENDUA	15eroko maiztasunez bildu izan da.

KOMUNIKAZIO TALDEA	
PARTAIDEAK	Komunikazioko udal arduradunaz eta herritarrez osatua.
EGINKIZUNAK	Komunikazio plana diseñatu eta garatu du. Kide batek talde eragilean parte hartu du.
FUNTZIONAMENDUA	Lan-taldeak berak zehaztu duena.

LAN-TALDEAK: Ingurumen eta Hirigintza; Herri Bizitza eta Ongizatea	
PARTAIDEAK	Udal ordezkari arduraduna, herritar arduraduna, eta herritarrak
EGINKIZUNAK	Lan-talde bakoitzak berari dagokion esparruan herrian dauden hutsuneen identifikazioa, proposamenen ekarpena eta hauen lehenestea.

FUNTZIONAMENDUA	Prozesuan zehar lan-talde bakoitza 3 aldiz bildu da
-----------------	---

3. HERRIAREN ARGAZKIA: ONDORIOAK ETA ERRONKAK

3.1. BIZTANLERIA

- Herritarrak zahartzen, 65 urtetik gorako asko. Etorkizun urbilean, behar berriak izango dira ongizate mailan.
- Herritar berriak etorri dira, azken boladan eginiko etxebizitzetara. Haur gehiago dago orain herrian. Erronka haur hauek herriko eskolan eskolaratzea. Sarri, erosotasunak bultzatuta (aiton-amonak inguruko herrietan, etab.), inguruko herrietan eskolaratzen dira.
- Gazte (18 urte inguruko) gutxi.

ERRONKA NAGUSIAK

- | |
|---|
| <ul style="list-style-type: none"> - Herritar helduen beharretara egokitutako gizarte zerbitzuak - Herriko haurrak herriko eskolan eskolaratzea |
|---|

3.2. JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA. JARDUERA EKONOMIKOAREN ERAGINA.

- Herrian bertan lan egiteko aukera gutxi (Jaso salbuespena). Industrialdean ere bertako jende gutxi lanean. Herritar gehienak inguruko herrietan lanean.
- Herritarrentzako lanpostu berrien beharra.
- Industria gehiagoren beharra.
- Baserrietan jende heldua.
- Egungo egoeran, gazteentzat aukera izan daiteke baserria, baldin eta laguntzen bada.
- Herriguneko enpresak mugitzea ondo legoke, betiere herrian bertan.
- Turismo zerbitzuak eskualde ikuspegitik landu behar dira.

ERRONKA NAGUSIAK

- | |
|--|
| <ul style="list-style-type: none"> - Herrian lanpostu berriak sortzea: industria, zerbitzuak, baserria. |
|--|

3.3. OINARRIZKO ZERBITZUAK ETA AZPIEGITURAK

- Egun, etxebizitza beharra asetuta dago. Izan dira zenbait urte, etxebizitza faltagatik gazteak alde egin beharrean suertatu zirenak, baina orain ez.
- Zerbitzu mailan hutsuneak:
 - o Euskaltel (fibra optikoa), ADSL seinalea ere eskasa, WiFirik oraindik ez.
 - o Gasa: propano biltegiak daude. Gas naturalik ez.
 - o Harategi eta arrandegia falta herrian.
- Ura udaletik kudeatzen da: hau positibotzat jotzen da.
- Osasun zerbitzuaren inguruko balorazioa oso ona, baina pediatra falta.
- Gizarte Zerbitzuen inguruan, herritarrek badaukate ohitura gizarte laguntzailearengana gerturatzeko. Laguntzak dezente murriztu dira oraingo egoerarekin.
- Eskola: eskolaren egoeraren inguruko ikuspegi ezberdinak daude (batzuk eskasa dela, besteek beti horrela ezagutu dutela eta hain gaizki ez dagoela). Eskolaren inguruan gogoeta behar da.
- Haur eskola: egun 3 haurrekin. Bat gutxiagorekin, itxi egin beharko litzateke. Egungo egoera ekonomikoak ere ez du laguntzen.
- Kultur ekintzen inguruko ikuspegi ezberdina: batzuen ustez ekintza puntualak antolatzen dira, besteen iritzizi nahiko ondo osatuta Kultur egitaraua, nahiz eta parte-hartzea eskasa izan.
- Kultur ekipamendu mailan ere badago zer hobetua. Udaletxeko areto berriak lagun dezake honetan.
- Festen inguruko ikuspegi ezberdina: gazteagoek positiboki baloratzen dute. Helduek, aldiz ez hainbeste. Landu beharreko gaia.
- Kirol mailako ekintzak ongi baloratzen dira, baina azpiegitura falta: gimnasio baten beharra aipatzen da, futbol zelaiarena.
- Herri giroa gaiztotuta sumatzen da, garai batean gertatutakoekin. Elkartean (Arbelaitz) ere giroa zapuztuta. Hala ere, elkarteak bazkide asko eta hau aukera da.
- Herri giroa sortzeko aukera gehiegirik ez dagoela uste da. Bertakoek kanpora jotzen dute.

ERRONKA NAGUSIAK

- Azpiegitura berriz herria hornitzea: telekomunikazio mailakoak, ekipamendu mailakoak,
- Eskolaren inguruko hausnarketa: haur eskola eta eskola berria.
- Kultur mailako egitaraua aberastea.
- Festen inguruko eztabaida burutzea.
- Bizikidetzaren mailako hausnarketa.

3.4. INGURUNE NATURALA

- Herri bideak berreskuratzen badago lana: Lizarditik Urkira doana, etab.
- Mendian, motoak, Quadak etab. Ibiltzen dira, bideak txikituz: Murumendira joateko ere lokatz asko euri egunetan.
- Terrenoetan gora beherak: katastroa eguneratu beharra.
- Legorreta uinguruan Eukaliptoak sartzen hasiak dira.
- Baso mugimendu gutxi. Pinudi asko utzuita daude. Dena larrak hartuta.
- Gero eta partikular gehiago terrenoak saltzeko prest.
- Hurrats txikiak eman ditu Udalak: terrenoak erosi eta kontserbazio mailako ekintzak burutuz.

ERRONKA NAGUSIAK

- Herriko natur ondarea babestu eta ezagutaraztea.

3.5. MUGIKORTASUNA. GARRAIOA. IRISGARRITASUNA

- Herria ondo komunikatuta.
- Herrigueko trafikoa N-1eko irteera berri batek arinduko luke, Jasok eragindako trafikoa gutxituko lizatekeelako (ez dira garai onenak horrelako azpiegituretarako...).
- Herri erditik pasatzen da errepidea eta honek zenbait arrisku.
- Bidegorriagatik errepideak estutzen joatea ez dute denek ongi ikusten. Gainera, oinezkoek txirrindulariekin eremu bera konpartitu behar dute. Badirudi GFA lehengo bidegorri proiektua aztertzen ari dela, agian aldaketak egongo dira.
- Ordiziara oinez joateko ez dago ondo, San Jaungo bidea oinezkoentzat izateko proposamena ere badago.
- Beitiko aldapan "bajada" ???

- Ibaresko aldapa ere oinezkoentzat izatea proposatzen da.
- Tren zerbitzua ona, baina haurren gurditxoekin etab. trenera igotzeko zailtasunak.
- Herrian aparkamendu arazorik ez.
- Auto gabe bizi daiteke Itsasondon, baina ez hain eroso.
- Autobus zerbitzua hobetu beharra.
- Herria aldapan kokatuta, honek irisgarritasun mailako arazoak.

ERRONKA NAGUSIAK

- Oinezkoentzako eremuak
- Autobus zerbitzua hobetzea
- Goiko auzoa behekoarekin lotzea

3.6. INGURUMEN BEKTOREAK

- Hondakinen bilketa sistemaren inguruan iritzi kontraerriak: Itsasondon egin eta inguruan ez egiteak inongo zentzurik ez. Jendea nazkatzea ekar lezake. Batzuk nahiago egun dagoena, atez-atekoa baino.
- Ura: udalak zuzenean kudeatzea ondo baloratzen da. Kontagailu berriekin asko irabazi da.
- Energia horniduran ez dago aukerarik herrian: propanoa.
- Nahiz eta zabortegei inkontrolatuen gaia asko hobetu den, oraindik agertzen dira zenabit gunetan (zubin inguruan eta).

ERRONKA NAGUSIAK

- Hondakinen gaia landu eta eztabaidatzea

3.7. KOMUNIKAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA PARTE HARTZEA

- Herriko gaien inguruko informazioa jasotzen da: Hitza, aldizkaria etab.en bidez.
- Panelak, SMS sistema ondo baloratzen dira; hala ere oraindik buzoneaketak beharrezko ikusten dira.
- Udala ere gertu sumatzen da, orokorrean: udala prest erantzuteko.
- Arratsaldeetarako erantzungalu bat, behintzat, beharrezkoa.

- Urte zailak izan dira giro aldetik, zurrunbilo batean daude oraindik eta honek herriko giroa erabat txartu du. Giroa bere onera ekartzea zaila.
- Nola bultzatu parte-hartzea??aztertu ebharreko gaia.
- Udaletxe aldetik ere bide berriak landu behar dira: herriko eragileekin aldizkako bilerak eginez, esaterako.

ERRONKA NAGUSIAK

- Herritarren parte-hartzea indartzea

4. EKINTZA-PLANA

4.1. IKUSPUNTU ESTRATEGIKOA

Ekintza-plan honetan iraunkortasuna da Itsasondoren etorkizunerako jomuga. Bide horretan, ondorengo zortzi Lerro Estrategikoa hauek markatu ditugu Ekintza-Plan berri honetan:

LE1. EKONOMIA IRAUNKORRA ETA ENPLEGUA BULTZATU
LE2. ONGIZATEA HOBETU, GIZARTERATZEA LAGUNDU, BERDINATSUNA ETA BIZIMODU OSASUNGARRIA SUSTATU
LE3. HERRI BIZITZA SENDOTZEA, HEZKUNTZA SISTEMA HOBETUZ, KULTURA SUSTATUZ ETA EUSKARAREN NORMALIZAZIO BERMATUZ
LE4. IRAUNKORTASUN IRIZPIDEAK BARNE DITUE LURRALDE ANTOLAMENDUA ETA UDAL PLANGINTZA BULTZATZEA
LE5. MUGIKORTASUN IRAUNKORRA SUSTATZEA ETA GARRAIO PUBLIKOA INDARTZEA
LE6. UR HORNIKUNTZAREN KUDEAKETA HOBETU, HONDAKIN UREN SAREA OSATU ETA UR KONSTUMOA MURRIZTEA
LE7.UDALAREN KUDEAKETA ENERGETIKOAN ERAGINKORTASUNA HANDIAGOTZEA
LE8. HERRIAN ETA UDALAREN KUDEAKETAN PARTE-HARTZEA OINARRI IZATEA

4.2. AALBORG+10 KONPROMISOAK

Aalborg+10 konpromisoak iraunkortasunaren alde lan egiteko 10 konpromisok osatutako bilduma da. Interesgarria iruditu zaigu, Itsasondoko Ekintza-Planeko ekintza bakoitza zein konpromisorekin lotzen den azaltzea. Hona hemen Aalborg+10 konpromisoak zerrendatuta:

- 1. Gobernu-era:** Erabaki-hartze prozesuak bultzatzea demokrazia parte-hartzailearen bidez.
- 2. Iraunkortasunera bideratutako Ingurumen kudeaketa:** kudeaketa programa eraginkorrek sortzea, diseinua hasten denetik ebaluaziora iritsi arte, ezarpen fasea ahaztu gabe.
- 3. Baliabide natural komunak:** baliabide naturalak babestea, zaintzea eta hauetara ekitatiboki iristeko aukera bermatzea.

- 4. Kontsumo eta bizimodu arduratsuak:** baliabideen erabilera arduratsu eta eraginkorra onartzea eta erraztea, eta kontsumo eta produkzio iraunkorra sustatzea.
- 5. Hirigintzako plangintza eta diseinua:** hirigintzako diseinu eta plangintzan paper estrategikoa onartzea, eta ingurumen gaiak, gizartekoak, ekonomikoak, osasunekoak eta kulturalak guztion onura lortzera bideratzea.
- 6. Mugikortasuna hobetzea eta trafikoa murriztea:** garraioa, osasuna eta ingurumenaren arteko elkarmenpekotasuna onartzea eta iraunkorrakoak diren mugikortasun erak sustatzeko konpromisoa hartzea.
- 7. Osasunaren aldeko tokian tokiko ekintza:** herritarren osasuna eta ongizatea babestea eta suspertzea.
- 8. Tokian tokiko ekonomia bizia eta iraunkorra:** Ingurumena kaltetu gabe lana sustatzen duen tokiko ekonomia bizia sortzea eta bermatzea.
- 9. Berdintasuna eta justizia soziala:** komunitate integratzaileak eta solidarioak bermatzea.
- 10. Tokian tokitik esparru globalera:** bakea, justizia, berdintasuna, garapen iraunkorra eta klimaren babeserako ardura geureganatzea.

4.3. EKINTZA-PLANAREN EGITURA

Ekintza-Plana arestian aipatutako Lerro Estrategikoetan antolatzen da. Era berean, Lerro Estrategiko hauetako bakoitza Programetan banatzen da. Programak, helburu konkretuak dira. Azkenik programak ekintzek osatzen dituzte:

LERRO ESTRATEGIKOAK *Ekintza Plana osatzen duten ekintzak egituratu eta tokiko garapen iraunkorra bideratuko duten helburuak dira.*

PROGRAMAK Lerro estrategikoak aurrera eramateko zehazten diren helburu operatiboak dira. Garatu beharreko kudeaketa eta ekimen arlo nagusietan oinarritzen dira)

Ekintzak (Programak zehaztu eta garatzen dituen neurri, eginkizun eta proiektuak dira. Kudeaketaren oinarritzko unitateak dira, hauen betekizuna ebaluagarria izan behar da)

Ekintzak: lehenetsitako ekintzak..

4.4. EKINTZA-PLANAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK

Tokiko Ekintza-planek hainbat motatako ekintzak dituzte, lerro estrategiko edo ekintza-programa gisa planteatutako helburu jakin bat lortzeko bidean aurrera egiten laguntzen dutenak. Ekintza horiek maila hauetan sailka daitezke:

- **Sentsibilizazioa, parte-hartzea eta prestakuntza**

Iraunkortasunerako trebakuntza eta hezkuntzarekin, eta herritarren eta komunitate horretako hainbat eragileren parte-hartzea sustatzearekin lotutako jarduerak.

- **Araudia**

Arau hauek gehitzea edo aldatzea: lurraren erabilerak eta jarduerak arautzen dituztenak, ingurunearekiko inpaktuak mugatzen dituztenak, ingurumenaren kudeaketa hobetzen dutenak edo iraunkortasunerako prozesuak eta jarrerak bultzatzen dituztenak eta ingurumen-kostuen edo -abantailen barneratzen laguntzen dutenak.

- **Pizgarri ekonomikoak**

Herritarren eta enpresen aldetik iraunkortasunerantz zuzendutako prozesuak eta jarrerak bultzatzen dituzten zergak, diru-laguntzak, finantziazio-lerroak edo beste tresna ekonomiko batzuk aldatzea, ingurumen-kostuak eta -abantailak barneratzen laguntzeko.

- **Ekipamenduak eta azpiegiturak**

Ekipamenduak erosteko edo azpiegiturak bideratzeko ekintzak.

- **Iraunkortasun-irizpideak integratzea**

Udal kudeaketarekin edo tokiko administrazioaren funtzionamendurekin lotutako hainbat alderditan iraunkortasun-irizpideak kontuan hartzen dituzten ekintzak.

- **Azterketak eta planak**

Iraunkortasun-mailari buruzko arlo, prozesu edo arazo nagusiak hobeto ezagutzeko edo baloratzeko, edo Tokiko Ekintza-planak gauzatu ezin dituen ekintzak definitzeko aukera ematen duten azterketak egitea.

- **Kudeaketa**

Iraunkortasuna lortzen laguntzen duten hainbat ekintza, udal-kudeaketarekin lotuta daudenak, eta ingurumen-kontrola, tramitazioak, esku-hartzeen eskaera eta beste hainbat alderdi kontuan hartzen dituztenak.

4.5. LERRO ESTRATEGIKOAK, PROGRAMAK ETA EKINTZAK

LE 1. EKONOMIA IRAUNKORRA ETA ENPLEGUA BULTZATU

P 1.1. LANBIDERA BIDERATUTAKO PRESTAKUNTZAREN SUSTAPENA	AALBORG+10
1.1.1. Langabeak kontratatzeko dauden laguntzen inguruko informazio eguneratua izan udalean.	9
1.1.2. Langabeak formatzeko ikastaroak bultzatu: Lanbidek eta Inemek antolatzen dituzten ikastaroen inguruko informazioa bidali herriko langabeei (webak eta tresna informatikoak erabiltzen ikastekoak, bereziki)	9
P 1.2. HERRIKO LANPOSTUEN SUSTAPENA	
1.2.1. "Lan-feria" antolatu: Itsasondoko enpresa ezberdinak eta herriko langabeak elkartzeko gunea eratuz.	8
1.2.2. Itsasondoko langabeen lan-poltsa sortu, herriko enpresek ere eskuragarri izan dezaten.	8
1.2.3. Herriko obretan herritarrak hartzeko baldintzak jarri.	8
1.2.4. Etorkizunena herriko enpresek izan ditzaketen langile beharrak udalari jakinarazteko prozesua bultzatu.	8

LE 2. ONGIZATEA HOBETU, GIZARTERATZEA LAGUNDU, BERDINATSUNA ETA BIZIMODU OSASUNGARRIA SUSTATU
--

P 2.1. OINARRIZKO ZERBITZU ETA EKIPAMENDUAK ANTOLATZEA	AALBORG+10
2.1.1 Herriko egoeraren diagnosia egin: itsasondoarren beharrek, gizarte zerbitzuen erabilera etab. aztertuz.	7
2.1.2. Elikagaien bilketa zerbitzua Caritasekin elkarlanean	7
2.1.3. Bolondres zerbitzuak sustatu, eskualdean funtzionatzen duten taldeekin elkarlanean	7
P 2.2. ADINEKO ITSASONDOARREN ONGIZATEA HOBETZEA	
2.2.1. Bakarrik bizi diren adinekoen egoeraren inguruko azterketa pertsonalizatua egin.	7
2.2.2. Jubilatuz gazteak erakari	7
2.2.3. Jubilatuen lokalari erabilpen gehiago eman (solasaldiak antolatzeko, etab.).	7
2.2.4. Jubilatuek berriro ere gimnasia ikastaroetan parte hartzea sustatu	7
P 2.3. GARAPENERAKO LANKIDETZA ANTOLATZEA	
2.3.1. Garapen bidean dauden herrialdeekiko harremana antolatu: proiektu zehatz bat aukeratu eta urtean egiten diren ekimen ezberdinak honetara bideratu.	9-10
P 2.4. BERDINTASUNA GARATZEA	
2.4.1. Udalaren Beradintasun Plana aztertu eta dinamizatu, horretarako akuilu lana egingo duen herritar talde bat antolatuz.	9
2.4.2. Martxaok 8 eta Azaroak 25eko egunak antolatzen jarraitu.	9

2.4.3. Berdintasuna errespetatzen ez duten ekintzak zein diren ezagutzeko bilerak antolatu urtean zehar.	9
P 2.5. OHITURA OSASUNTSUAK BULTZATU ETA OSASUN ZERBITZUA HOBETU	
2.5.1. Gazteria eta Ongizate Sailak koordinatuta, drogomenpekotasunaren prebentzioaren inguruko ekimen bat bideratu.	7
2.5.2. Herriko medikuarekin bildu, Osasun arloan Itsasondon ikusten dituen beharrak aztertzeko.	7
2.5.3. Udala eta Medikuaren arteko harremana egituratu.	7
2.5.4. Eskualdeko pediatria eta emaginaren zerbitzua indartu, ahal dela pediatria eta emaginaren zerbitzua herrira ekartzea bultzatu	7
2.5.5. Kirol ikastaroak antolatu.	7
2.5.6. Eguten direne kintzak berreskuratu eta mantendu (patinajea, etab.)	7
2.5.7. Urteko kirol plangintza landu, adostu eta lan banaketa egin eragileen artean.	7
2.5.8. IKE eta Udalaren arteko elkarlana indartu.	7
2.5.9. Frontoiko dutxak egokitu eta erabilera arautu.	7
2.5.10. Mendi irteerak antolatu.	7
2.5.11. Herri krossa antolatu, herriko talde ezberdinak inplikatuz.	7
2.5.12. Gimnasio txiki bat antolatu, dagokion kirol begiralearekin.	7
P 2.6. ETXEBIZITZAK ESKURATZEKO ERRAZTASUNAK EMATEA	
2.6.1. Gazteentzat etxebizitza Sozialak bultzatu	9
P 2.7. INTEGRAZIOA LANDU	
2.7.1. Herrira bizitzera etortzen den oro herriko bizimoduan txertatzeko inizatibak sortu (festetan, sukalde ikastaroak, etab.).	9
2.7.2. Herri zerbitzuen liburuska argitaratu, herriko argazkia izango dena kanpotik etortzen direnentzat.	9

LE 3. HERRI BIZITZA SENDOTZEA, HEZKUNTZA SISTEMA HOBETUZ, KULTURA SUSTATUZ ETA EUSKARAREN NORMALIZAZIO BERMATUZ	
P 3.1. HEZKUNTZAN IRAUNKORTASUNA BULTZATZEA	
3.1.1. Herriko egoeraren azterketa sakona egin: zenbat ume herrian, zenbat herriko eskolara eta zenbat kanpora, honen zergatia, etab. aztertuz.	10
3.1.2. Azterketatik abiatutako Plangintza herriko haurrak herrian bertan eskolaratzeko.	10
3.1.3. Herria eta eskolaren arteko lotura bermatu, sendotu: eskola txikien egitekoa ezagutzera eman, Udaletik eskola bultzatu, Guraso Elkartea indartu.	10
P 3.2. KULTUR EGITARAU ERAKARGARRIA ANTOLATZEA, ELKARTE SAREA SUSTATUZ	
3.2.1. Kultur Batzordea indartu, elkarte ezberdinetako kideen parte-hartzea bultzatuz.	10
3.2.2. Festetan ekintza orikinalak antolatu.	10
3.2.3. Gazte Batzordea Kultur Batzoredean txertatu	10
3.2.4. Hitzaldi/tertulia ezberdinak antolatu	10
P 3.3. EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA	
3.2.1. Mintzalagun esperientziak abian jarri.	10
3.2.2. Adineko pertsonekin solasaldian antolatu, beraien Euskara maila ona ezagutzeaz gain, garai bateko bizimodua, ohiturak etab. ezagutzeko.	10
3.2.3. Euskara ikastaroak herrian ematea bultzatu, taldeen eraketa sustatuz eta laguntzak emanaz.	10
P 3.4. HAUR, GAZTE ETA NERABEEN PARTE-HARTZE ZERBITZUA BULTZATZEA	
3.4.1. 15urteetik gorakoentzako bilgunea antolatu: hilean behin afaldu, filmak ikusi etab. etarako.	9-10

3.4.2. Gaztelekuan ostiralero biltzeko ohiturarekin jarraitu.	9-10
3.4.3. Gazteek antolatzen dituzten ekintzak bultzatu: ostiralak, Herri Eguna,U dalekuak., Aldizkaria.	9-10
3.4.4. Gazte zerbitzuetara gazte gehiago erakartzen saiatu.	9-10
3.4.5. Udaleku Irekiak herriko gazteekin antolatzen jarraitu.	9-10
3.4.6. Nerabeen zerbitzuan gurasoen parte-hartzea lortzea	9-10
3.4.7. Haurren zerbitzuarekin gurasoen elkarlanarekin jarraitzea	9-10
P 3.5. LIBURUTEGI BERRIAREN FUNTZIONAMENDUA EGONKORTZEA	
3.5.1. Liburutegiko kudeaketa plana egin	9-10
3.5.2. Kzguneari aprobetxamendua atera, ikastaroak emanez.	9-10

LE 4. IRAUNKORTASUN IRIZPIDEAK BARNE DITUE LURRALDE ANTOLAMENDUA ETA UDAL PLANGINTZA BULTZATZEA
--

P 4.1. LURZORUA BERRANTOLATZEA	AALBORG+10
4.1.1. Etxebizitzen inguruko plangintza egin: hutsik dauden etxebizitzen alokairua bultzatzeko.	5
4.1.2. Herriguneko enpresak atera, eta bertan Eskola berria jarri.	5
4.1.3. Hiri antolamenduan jasota dauden eremu berri desberdinen sustapena egin.	5
4.1.4. Beko kaleko errepidean zehar espaloiak egin eta aparkamendu plazak antolatu.	5
4.1.5. Renfeko geltokira dijoan errepidean espaloiak egin eta aparlkamendu plazak antolatu.	5
P 4.2. HIRI ETA NATUR INGURUNEAK ANTOLATU ETA ARAUTZEA	

4.2.1. Martxan diren berreskurapen proiektuen jarraipena egin eta berriak egiten jarraitu.	5
4.2.2. Murumendiko natur parkea sustatu terreno berriak erosiz edo terrenoen zaintzarako partikularrekin hitzarmenak burutuz.	5
4.2.3. Urkian atsedenleku egokia antolatu, Urkiako aterpeari erabilera gehiago emanaz.	5
P 4.3. PAISAIA, NATURA ETA KULTURA IKUSPUNTUTIK INTERESEKO EREMUAK IDENTIFIKATU ETA BABESTEIA	
4.3.1. Herrian zehar ibilbideak egin baserriak, harrobi zuloak, herri mugak etab ezagutuz.	3
4.3.2. Meatzeen aztarnak txukundu, mantendu eta ezagutarazi.	3
4.3.3. Herri bideen mapa egin eta herri bide hauek garbi mantendu.	3
4.3.4. Ondarea natural eta kulturalaren inguruko difusioa egin: mendi irteerak eginez, erakusketak eginez, aldizkarian informazioa ateraz, generazioen arteko solasaldiak.	3
4.3.5. San Juango ermita eta Santiago bidearen lotura indartu eta hobetu.	
P 4.4. HERRIA OINARRIZKO ZERBITZUEZ HORNITZEA	
4.4.1. Herriko dendak ematen duen zerbitzua osatu, espazioa zabalduz.	5
4.4.2. Zuntz optikoa edo adsl azkarra ekarri.	5
4.4.3. Gas natural sarea herrira ekarri Ordiziatik Legorreta bitarte.	5
P 4.5. UDALETXEA BIRGAITZEA ERABILERA BERRIAK AHALBIDETUZ	
4.5.1. 1. Solairuko birgaitzea bukatu, horretarako, eremuen erabilera finkatuz	5

LE 5. MUGIKORTASUN IRAUNKORRA SUSTATZEA ETA GARRAIO PUBLIKOA INDARTZEA

	AALBORG+10
P 5.1. GARRAIO PUBLIKOA HOBETZEA	
5.1.1. Garraio publikoaren beharren azterketa egi eta erabilera sustatu (Renfe-Goierrialdea).	6
P 5.2. MOTORRIK GABEKO GARRAIOBIDEAK SUSTATZEA	
5.2.1. Bizikletak erosi eta erabiltzeko kanpaina bat burutu	6
5.2.2. Trafikoaren azterketa egin.	6
5.2.3. Herri barruko bidegorria egin	6
P 5.3. IRISGARRITASUNA BERMATZEA	
5.3.1. Espaloaik konpondu, eginda dagoen azterketa jarraituz.	6
5.3.2. Igogailu edo eskailera mekanikoak jartzeko aukera aztertu (kostuak, mantenimendua etab. Kontutan izanez)	6
5.3.3. Gaizki aparkatutako autoek irisgarritasunean duten eragina herritarrei jakinarazi eta joera horiekin amaitzeko neurriak hartu.	6
5.3.4. Frontoiko irisgarritasun arazoak konpondu	6

LE 6. UR HORNIKUNTZAREN KUDEAKETA HOBETU, HONDAKIN UREN SAREA OSATU ETA UR KONSTUMOA MURRIZTEA

	AALBORG+10
--	------------

P 6.1. GALERAK(KONTABILIZATU GABEKO URAK) MURRIZTEA	
6.1.1. Atzemandako Ur galeren konponketak egin.	4
P 6.2. UR AUTONOMIA LORTZEA	
6.2.1. Ur autonomia lortzeko beharrezko baldintzak zein diren aztertu (hornidura, segurtasuna, etab.)	4

LE 7. UDALAREN KUDEAKETA ENERGETIKOAN ERAGINKORTASUNA HANDIAGOTZEA

	AALBORG+10
P 7.1. ARGITERIA PUBLIKOAREN ERAGINKORTASUNA HOBETZEA	
7.1.1. Argiteria publiko eraginkor eta iraunkortasuna helburu hartuta, beharrezko auditoria egin.	4
7.1.2. Argiterian eraginkortasun neurriak garatu.	4
7.1.3. Argiaren kontsumoa murrizteko neurriak hartu.	4

LE 8. HERRIAN ETA UDALAREN KUDEAKETAN PARTE-HARTZEA OINARRI IZATEA

	AALBORG+10
P 8.1. UDAL KUDEAKETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA TXERTATZEA	
8.1.1. Aurrekontu parte-hartzaileak.	1
8.1.2. Buzoneatze zerbitzua berreskuratzea.	1
8.1.3. Udal eta herriko informazioa bide berrien bidez zabandu: pantailak, sare sozialak, webgune berria, aldizkaria, etab.	1
P 8.2. HERRIKO FUNTZIONAMENDUAN (ELKARTE, EGITARAU ETAB.) PARTE-HARTZEA SUSTATZEA	
8.2.1. Elkarteen Sarea edo batzordea antolatu: elkarteetako ordezkariak bilduko dituen Batzordea. Gazte batzordea ere Ud	1
8.2.2. Urte osoko egitarau bateratua antolatu: antolaketan ere elkarte ezberdinak inplikatu.	1
8.2.3. Herriko talde ezberdinen arteko harremanak hobetzeko jardunaldiak antolatu.	1
8.2.4. Ekitaldi parte-hartzaileak antolatu.	1

5. EKINTZA-PLANA LAN-TRESNA

Itsasondoko Udalaren asmoa, Udal funtzionamenduan herritarren parte-hartzea modu iraunkorrean txertatzea da. Horretarako parte-hartze eredu diseinatu du Udalak, hiru lan-talde sortuz (informazio gehiago *Itsasondoko parte-hartze eredu* izeneko dokumentuan).

Ekintza-plan hau, lan-talde hauentzat ahalik eta erabilgarriena suerta dadin, jarraian, lan-talde bakoitzak landu beharreko gaien eta helburuen arabera antolatu da Ekintza-Plana.

5.1. HERRI BIZITZA

HEZKUNTZA: Itsasondoko eskolaren Iraunkortasuna bermatzea
1. Herriko egoeraren azterketa sakona egin: zenbat ume herrian, zenbat herriko eskolara eta zenbat kanpora. LEHENTASUNEZKOA
2. Azterketatik abiatutako Plangintza herriko haurrak herrian bertan eskolaratzeko. LEHENTASUNEZKOA
3. Herria eta eskolaren arteko lotura bermatu, sendotu: eskola txikien egitekoa ezagutzera eman, Udaletik eskola bultzatu, Guraso Elkarte indartu. LEHENTASUNEZKOA

KULTURA: Egitarau erakargarria antolatzea eta herriko elkarten sarea sustatzea. Azpiegiturak egokitu eta hauen erabilera bultzatzea
1. Kultur Batzordea indartu, elkarte ezberdinetako kideen parte-hartzea bultzatuz.
2. Festetan ekintza orikinalak antolatu.
3. Gazte Batzordea Kultur Batzoredean txertatu.
4. Hitzaldi/tertulia ezberdinak antolatu.
5. Liburutegiko kudeaketa plana egin.
6. Kzguneari aprobetxamendua atera, ikastaroak emanez.

EUSKARA: Erabilera normalizatzea eta jakintza areagotzea

1. Mintzalagun esperientziak abian jarri. LEHENTASUNEZKOA
2. Adineko pertsonekin solasaldian antolatu, beraien Euskara maila ona ezagutzeaz gain, garai bateko bizimodua, ohiturak etab. ezagutzeko. LEHENTASUNEZKOA
3. Euskara ikastaroak herrian ematea bultzatu, taldeen eraketa sustatuz eta laguntzak emanaz.

HAUR, GAZTE ETA NERABEAK: Parte-hartze zerbitzua bultzatzea
1. 15urtetik gorakoentzako bilgunea antolatu: hilean behin afaldu, filmak ikus tab.etarako.LEHENTASUNEZKOA
2. Gaztelekuan ostiralero biltzeko ohiturekin jarraitu.LEHENTASUNEZKOA
3. Gazteek antolatzen dituzten ekintzak bultzatu: ostiralak, Herri Eguna,U dalekuak., Aldizkaria.
4. Gazte zerbitzuetara gazte gehiago erakartzen saiatu.
5. Udaleku Irekiak herriko gazteekin antolatzen jarraitu.
6. Nerabeen zerbitzuan gurasoen parte-hartzea lortzea
7. Haurren zerbitzuarekin gurasoen elkarlanarekin jarraitzea

PARTE-HARTZEA: Udal zein herri mailan parte-hartze bidezko kudeaketa ereduak martxan jartzea.
1. Aurrekontu parte-hartzaileak diseinatu.
2. Buzoneatze zerbitzua berreskuratzea.
3. Udal eta herriko informazioa bide berrien bidez zabaltu: pantailak, sare sozialak, webgune berria, aldizkaria, etab.
4. Elkarteen Sarea edo batzordea antolatu: elkarteetako ordezkariak bilduko dituen Batzordea. LEHENTASUNEZKOA
5. Urte osoko egitarau bateratua antolatu: antolaketan ere elkarte ezberdinak inplikatu. LEHENTASUNEZKOA

6.Herriko talde ezberdinen arteko harremanak hobetzeko jardunaldiak antolatu. LEHENTASUNEZKOA

7. Ekitaldi parte-hartzaileak antolatu. LEHENTASUNEZKOA

5.2. ONGIZATEA

LANGABEZIA: Lanera bideratutako prestakuntza eskaini eta herriko lanpostuak sustatu.

1. Langabeak kontratatzeko dauden laguntzen inguruko informazio eguneratua izan udalean.

2. Langabeak formatzeko ikastaroak bultzatu: Lanbidek eta Inemek antolatzen dituzten ikastaroen inguruko informazioa bidali herriko langabeei (webak eta tresna informatikoak erabiltzen ikastekoak, bereziki)

3. "Lan-feria" antolatu: Itsasondoko enpresa ezberdinak eta herriko langabeak elkartzeko gunea eratu.

4. Itsasondoko langabeen lan-poltsa sortu, herriko enpresek ere eskuragarri izan dezaten. LEHENTASUNEZKOA

5. Herriko obretan herritarrak hartzeko baldintzak jarri. LEHENTASUNEZKOA

6. Etorkizunena herriko enpresek izan ditzaketen langile beharrak udalari jakinarazteko prozesua bultzatu.

ONGIZATE ZERBITZUAK: Oinarrizko zerbitzua eta ekipamenduak antolatzea.

1. Herriko egoeraren diagnostia egin: itsasondoa beharrek, gizarte zerbitzuen erabilera etab. aztertuz.

2. Elikagaien bilketa zerbitzua Caritasekin elkarlanean. LEHENTASUNEZKOA

3. Bolondres zerbitzuak sustatu, eskualdean funtzionatzen duten taldeekin elkarlanean

ADINEKOAK: Adineko itsasondoa ongizatea hobetzea.

1. Bakarrik bizi diren adinekoen egoeraren inguruko azterketa pertsonalizatua egin.

2. Jubilatu gazteak erakari

3. Jubilatuen lokalari erabilpen gehiago eman (solasaldiak antolatzeko, etab.).

4. Jubilatuek berriro ere gimnasia ikastaroetan parte hartzea sustatu

GARAPENERAKO LANKIDETZA: Egarapenerako lankidetzaren antolatzeko.

1. Garapen bidean dauden herraldeekiko harremana antolatu: proiektu zehatz bat aukeratu eta urtean egiten diren ekimen ezberdinak honetara bideratu.

BERDINTASUNA: Berdintasuna landu eta garatzea.

1. Udalaren Beradintasun Plana aztertu eta dinamizatu, horretarako akuilu lana egingo duen herritar talde bat antolatu.

2. Martxoak 8 eta Azaroak 25eko egunak antolatzen jarraitu.

3. Berdintasuna errespetatzen ez duten ekintzak zein diren ezagutzeko bilerak antolatu urtean zehar.

ETORKINAK: Integrazioa praktikoki lantzea.

1. Herrira bizitzera etortzen den oro herriko bizimoduan txertatzeko inizatibak sortu (festetan, sukalde ikastaroak, etab.). LEHENTASUNEZKOA

2. Herri zerbitzuen libruska argitaratu, herriko argazkia izango dena kanpotik etortzen direnentzat.

ETXEBIZITZA ESKUBIDEA: Etxebizitzak eskuratzeko erraztasunak ematea.

1. Gazteentzat etxebizitza sozialak bultzatu.

OSASUNA: Zerbitzua hobetu eta ohitura osasuntsuak bultzatzea.

1. Gazteria eta Ongizate Sailak koordinatuta, drogomenpekotasunaren prebentzioaren inguruko ekimen bat bideratu.

2. Herriko medikuarekin bildu, Osasun arloan Itsasondon ikusten dituen beharrak aztertzeko. LEHENTASUNEZKOA

3. Udala eta Medikuen arteko harremana egituratu.
4. Eskualdeko pediatria eta emaginen zerbitzua indartu, ahal dela pediatria eta emaginaren zerbitzua herrira ekartzea bultzatu
5. Kirol ikastaroak antolatu.
6. Eguten direne kintzak berreskuratu eta mantendu (patinajea, etab.)
7. Urteko kirol plangintza landu, adostu eta lan banaketa egin eragileen artean. LEHENTASUNEZKOA
8. IKE eta Udalaren arteko elkarlana indartu.
9. Frontoiko dutxak egokitu eta erabilera arautu.
10. Mendi irteerak antolatu.
11. Herri krossa antolatu, herriko talde ezberdinak inplikatuz. LEHENTASUNEZKOA
12. Gimnasio txiki bat antolatu, dagokion kirol begiralearekin. LEHENTASUNEZKOA

5.3. LURRALDE ANTOLAMENDUA

HIRIGINTZA: Hiri lurzorua berrantolatzea
1. Etxebizitzaren inguruko plangintza egin: hutsik dauden etxebizitzaren alokairua bultzatzeko.
2. Herriguneko enpresak atera, eta bertan Eskola berria jarri.
3. Hiri antolamenduan jasota dauden eremu berri desberdinen sustapena egin.
4. Beko kaleko errepidean zehar espaloiak egin eta aparkamendu plazak antolatu.
5. Renfeko geltokira dijoan errepidean espaloiak egin eta aparkamendu plazak antolatu.
6. Udaletxeko 1. Solairuko birgaitzea bukatu, horretarako, eremuen erabilera finkatuz

INGURUNEA ETA PAISAIA: : Natur ingurumea berreskuratzea, antolatzea eta ezagutzera ematea

1. Martxan diren berreskurapen proiektuen jarraipena egin eta berriak egiten jarraitu.
2. Murumendiko natur parkea sustatu terreno berriak erosiz edo terrenoen zaintzarako partikularrekin hitzarmenak burutuz.
3. Urkian atsedenleku egokia antolatu, Urkiako aterpeari erabilera gehiago emanaz.
4. Herrian zehar ibilbideak egin baserriak, harrobi zuloak, herri mugak etab ezagutuz. LEHENTASUNEZKOA
5. Meatzeen aztarnak txukundu, mantendu eta ezagutarazi.
6. Herri bideen mapa egin eta herri bide hauek garbi mantendu.
7. Ondarea natural eta kulturalaren inguruko difusioa egin: mendi irteerak eginez, erakusketak eginez, aldizkarian informazioa ateraz, generazioen arteko solasaldiak. LEHENTASUNEZKOA
8. San Juango ermita eta Santiago bidearen lotura indartu eta hobetu.

OINARRIZKO AZPIEGITURAK: Herria oinarrizko zerbitzuz ornitzea
1. Herriko dendak ematen duen zerbitzua osatu, espazioa zabalduz.
2. Zuntz optikoa edo adsl azkarra ekarri.
3. Gas natural sarea herrira ekarri Ordiziatik Legorreta bitarte.

MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA : Mugikortasun ohitura iraunkorrak bultzatu eta irisgarritasuna bermatzea
1. Garraio publikoaren beharren azterketa egi eta erabilera sustatu (Renfe-Goierraldea).
2. Bizikletak erosi eta erabiltzeko kanpaina bat burutu
3. Trafikoaren azterketa egin.
4. Herri barruko bidegorria egin
5. Espaloaik konpondu, eginda dagoen azterketa jarraituz.

6. Igogailu edo eskailera mekanikoak jartzeko aukera aztertu (kostuak, mantenimendua etab. Kontutan izanez)

7. Gaizki aparkatutako autoek irisgarritasunean duten eragina herritarrei jakinarazi eta joera horiekin amaitzeko neurriak hartu.

8. Frontoiko irisgarritasun arazoak konpondu.

URA: Kudeaketa hobetu eta kontsumoa murriztea.

1. Atzemandako Ur galeren konponketak egin.

2. Ur autonomia lortzeko beharrezko baldintzak zein diren aztertu (hornidura, segurtasuna, etab.)

ENERGIA: eraginkortasuna handiagotzea

1. Argiteria publiko eraginkor eta iraunkortasuna helburu hartuta, beharrezko auditoria egin.

2. Argiterian eraginkortasun neurriak garatu.

3. Argiaren kontsumoa murrizteko neurriak hartu.

6. EKINTZAK

6.1. EKINTZEN KARAKTERIZAZIOA

Ekintza-planeko oinarrizko kudeaketa unitatea ekintza da, hots, ekintzak izango dira garatzen eta ebaluatzen joan beharrekoak.

Planetazen den parte-hartze eremuan, beraz, ekintza hauek aukeratzen eta zehazten joatea izango da lehenengo lana. Honetarako jarraian zehazten den ekintza fuitxak betetzen joatea gomendatzen da.

LAN-TALDEA	Dagokion lan-taldea (Herri Bizitza, Ongizatea, Lurralde Antolamendua)		
Gaia	Ekintza zein gaiekin eralzionaturik dagoen (energia, 3.adina, kultura, etab.)		
EKINTZA	Ekintzaren titulua zehaztuko da		
Deskribapena	Ekintzaren deskribapen laburra. Ekintza aurrera eramateko jarraitu ebeharreko ekimen do aktuzioak zehaztuko dira bertan.		
Noiz hasi	Ekintza noiz hasiko den	Noiz bukatu	Ekintza noiz bukatuko den.
Lehentasuna	Ekintzak duen lehentasun maila (Altua, Ertaina, Baxua).		
Aurreikusitako kostua	Zenbateko kostua aurreikusten den	Finantziarioa	Ekintza finantziatzeko aurreikusten/ortu diren dirulaguntzak
Ardura jarraipena/burutzea	Ekintza aurrera eramateaz edo jarraitzeaz arduratuko den pertsona/sailaren izena.		
Oharrak	...		

6.2. EKINTZEN BALORAZIO FITXAK

Ekintzak garatu ote diren, hauek nola garatu diren eta garatzerakoan izan diren arazo, indargune etab. Baloratzeko ondorengo fitxa eredu aurkezten da, dagokion arduradunak bete dezan.

LAN-TALDEA	Dagokion lan-taldea (Herri Bizitza, Ongizatea, Lurralde Antolamendua)		
Gaia	Ekintza zein gaiekin eralzionaturik dagoen (energia, 3.adina, kultura, etab.)		
EKINTZA	Ekintzaren tituloa zehaztuko da		
Ekintza burutu da?	Bai	<input type="checkbox"/>	Ez, Zergatik? Zergatia azaldu (aurrekontua, inplikazioa..)
Epeak bete dira?	Ekintza noiz hasiko den		Aurrekontua Finantziarioa
Eragileen parte-hartzea	Zein eragilek parte hartu dute ekintzan?		
Indarguneak	Ekintzatik, zer baloratzen dugun positiboki		
Ahulguneak	Ekintzatik, zer baloratzen dugun negatiboki		
Zer daukagu hobetzeko?	Hobetzeko dauzkagun puntuak		
Balorazio orokorra	Balorazioa Ona, Balekoa ala Txarra.		

6.3. LEHENETSITAKO EKINTZEN FITXAK

Jarraian, Tokiko Agenda 21eko Berrikuspen prozesuko parte-hartze prozesuan lehenetsi diren ekintzen karakterizazio fitxak agertzen dira:

LAN-TALDEA	Ongizatea		
Gaia	Langabezia, lan-merkatua		
EKINTZA	1.2.2. Itsasondoko langabeen lan-poltsa sortu, herriko enpresek ere eskuragarri izan dezaten.		
Deskribapena	Itsasondoko Udalean hala nahi duten herriko langabeen lan-poltsaren datu basea egingo da. Era berean, herriko enpresei datu base hau Udalak daukala esanez, berri emango zaie. Lanposturen bat libre dutenean, enpresek zuzenean Udalera jo eta herritarren datu basea eskura izan dezaten.		
Noiz hasi	2013	Noiz bukatu	Urtero berritu beharrekoa
Lehentasuna	Altua		
Aurreikusitako kostua	0 €	Finantziakzioa	--
Ardura jarraipena/burutzea	Ongizate Saila		
Oharrak	...		

LAN-TALDEA	Ongizatea		
Gaia	Lan-merkatua		
EKINTZA	1.2.3. Herriko obretan herritarrak hartzeko baldintzak jarri		
Deskribapena	Udalak herrian burutu behar dituen obrak aurrera eramaterakoan, kontsultatu langileak herritarrak izatearen baldintza jar daitekeen (hobetsiz edo).		
Noiz hasi	2013	Noiz bukatu	2013
Lehentasuna	Altua		
Aurreikusitako kostua	0 €	Finantziazioa	—
Ardura jarraipena/burutzea	Ongizate Saila		
Oharrak	...		

LAN-TALDEA	Ongizatea		
Gaia	Ongizatea		
EKINTZA	2.1.2. Elikagaien bilketa zerbitzua burutu Caritasekin elkarlanean		
Deskribapena	Orain arte Caritas arduratu da elikagaien bilketa egin eta banatzeaz. Udalarekin elkarlanean aurrera eraman daitekeen ekimena dela iruditzen da, elkarlanak ekimena indartuko lukeelakoan.		
Noiz hasi	2013	Noiz bukatu	Urterokoa
Lehentasuna	Altua		
Aurreikusitako kostua	0 €	Finantziak	—
Ardura jarraipena/burutzea	Ongizate Saila.		
Oharrak	...		

LAN-TALDEA	Ongizatea		
Gaia	Osasuna		
EKINTZA	2.5.2. Herriko medikuarekin bildu, Osasun arloan Itsasondon ikusten dituen beharrak aztertzeko		
Deskribapena	Herriko osasun zerbitzuekin harremanak egituratu, Herrian egon daitezkeen beharrak atzeman eta elkarlana burutzea beharrezkoa ikusten da.		
Noiz hasi	2013	Noiz bukatu	Urtero berritu beharrekoa
Lehentasuna	Altua		
Aurreikusitako kostua	0 €	Finantziak	--
Ardura jarraipena/burutzea	Ongizate Saila.		
Oharrak	...		

LAN-TALDEA	Herri Bizitza		
Gaia	Kirola, Osasuna		
EKINTZA	Urteko kirol plangintza landu, adostu eta lan banaketa egin eragileen artean.		
Deskribapena	Itsasondon urtean zehar kirol ekintza ezberdinak izaten dira. Kirol ekintza hauek aberaste aldera, eta berau bultzatuko duen talde egonkor eta dinamiko bat bultzatze aldera, kirol plangintza bat egitea beharrezkoa ikusten da.		
Noiz hasi	2013	Noiz bukatu	Urtero berritu beharrekoa
Lehentasuna	Altua		
Aurreikusitako kostua	--	Finantziak	--
Ardura jarraipena/burutzea	Kultura Saila		
Oharrak	...		

LAN-TALDEA	Ongizatea		
Gaia	Etorkinak		
EKINTZA	2.7.1. Herrira Bizitzera etortzen den oro herriko bizimoduan txertatzeko inizatibak sortu (festetan, sukalde ikastaroak, etab.)		
Deskribapena	Herrira bizitzera etortzen den herritar berriak herriko giroan txertatu eta herri bizitza indartzen joateko, uretan zehar aurrera eramaten diren ekimen ezberdinak aprobetxatu beharra ikusten da.		
Noiz hasi	2013	Noiz bukatu	Urtero berritu beharrekoa
Lehentasuna	Altua		
Aurreikusitako kostua	--	Finantziak	--
Ardura jarraipena/burutzea	Ongizate Saila		
Oharrak	...		

LAN-TALDEA	Dagokion lan-taldea (Herri Bizitza, Ongizatea, Lurralde Antolamendua)		
Gaia	Ekintza zein gaiekin eralzionaturik dagoen (energia, 3.adina, kultura, etab.)		
EKINTZA	Ekintzaren tituloa zehaztuko da		
Deskribapena	Ekintzaren deskribapen laburra. Ekintza aurrera eramateko jarraitu ebeharreko ekimen do aktuzioak zehaztuko dira bertan.		
Noiz hasi	Ekintza noiz hasiko den	Noiz bukatu	Ekintza noiz bukatuko den.
Lehentasuna	Ekintzak duen lehentasun maila (Altua, Ertaina, Baxua).		
Aurreikusitako kostua	Zenbateko kostua aurreikusten den	Finantziak	Ekintza finantziatzeko aurreikusten/loru diren dirulaguntzak
Ardura jarraipena/burutzea	Ekintza aurrera eramateaz edo jarraitzeaz arduratuko den pertsona/sailaren izena.		
Oharrak	...		

LAN-TALDEA	Herri Bizitza		
Gaia	Hezkuntza		
EKINTZA	3.1.1. Herriko egoeraren azterketa sakona egin: zenbat ume herrian, zenbat herriko eskolara eta zenbat kanpora, honen zergatia, etab. aztertuz		
Deskribapena	Herriko bizitza indartze aldera EZINBESTEKOA ikusten da herriko eskolari indarra ematea. Honetarako, lehenik eta ebhin azterketa bat egin behar da Herri Eskoalren egoera zein den ikusteko: batez ere, herrian eskolaratzen ez dituzten haurren egoera, motiboak etab. aztertuz.		
Noiz hasi	2013	Noiz bukatu	2014
Lehentasuna	Altua		
Aurreikusitako kostua	--	Finantziazioa	--
Ardura jarraipena/burutzea	Kultura/Hezkuntza Saila		
Oharrak	Eskolarekin batera aurrera eraman beharreko ekintza		

LAN-TALDEA	Herri Bizitza		
Gaia	3.1.2. Azterketatik abiatutako plangintza herriko haurrak herrian bertan eskolaratzeko.		
EKINTZA	3.1.2. Azterketatik abiatutako plangintza herriko haurrak herrian bertan eskolaratzeko		
Deskribapena	3.1.1. ekintzarekin lotutako ekintza. Behin azterketa eginda, ondoren plangintza egin behar da helburua garbi izanda: herriko haurrak herrian ikasten gera daitezten.		
Noiz hasi	2014	Noiz bukatu	2014.
Lehentasuna	Altua		
Aurreikusitako kostua	—	Finantziak	--
Ardura jarraipena/burutzea	Kultura/Hezkuntza Saila		
Oharrak	Eskolarekin batera aurrera eraman beharreko ekintza		

LAN-TALDEA	Herri Bizitza		
Gaia	Hezkuntza		
EKINTZA	3.1.3. herria eta eskolaren arteko lotura bermatu, sendotu.		
Deskribapena	3.1.1. eta 3.1.2. puntuekin lotutako ekintza. Eskola indartzeko egiten duen lana ezagutarazi, eskola txikien egitekoa azaldu, Udaletik eskola bultzatu eta Guraso Elkartea indartu behar dira.		
Noiz hasi	2014	Noiz bukatu	Jarraia
Lehentasuna	Altua		
Aurreikusitako kostua	--	Finantziak	--
Ardura jarraipena/burutzea	Kultura/Hezkuntza Saila		
Oharrak	Eskolarekin batera aurrera eraman beharreko ekintza		

LAN-TALDEA	Herri Bizitza		
Gaia	Euskara		
EKINTZA	3.3.1. Mintzalagun esperientziak abian jarri		
Deskribapena	Euskararen erabilera bultzatzeko mintzalagun esperientziak martxan jarri herrian.		
Noiz hasi	2013	Noiz bukatu	Jarraia
Lehentasuna	Altua		
Aurreikusitako kostua	--	Finantziakoa	--
Ardura jarraipena/burutzea	Kultura Saila.		
Oharrak	...		

LAN-TALDEA	Herri Bizitza		
Gaia	Euskara		
EKINTZA	3.3.2. Adineko pertsonekin solasaldiak antolatu, beraien esukara maila ona ezagutzeaz gain, garai bateko bizimodua, ohiturak etab. ezagutzeko.		
Deskribapena	Euskararen erabilera indartu, eta garai bateko Itsasondoko euskara ezagutu eta herri izaera ere indartzeko, adinekoekin solasaldiak antolatzea proposatzen da.		
Noiz hasi	2013	Noiz bukatu	2014
Lehentasuna	Altua		
Aurreikusitako kostua	--	Finantziak	--
Ardura jarraipena/burutzea	Kultura Saila		
Oharrak	...		

LAN-TALDEA	Herri Bizitza		
Gaia	Gazteak		
3.4.1.	3.4.1. 15 urtetik gorakoentzako bilgunea antolatu:hilean behin afaldu, filmak ikusi etab.etarako		
Deskribapena	Adin tarte bat badago, ekimen gehiegi antolatzen ez direnak beraientzat. Adin tarte honetan Ordiziara joateko jhoera handia. Herritartasuna bultzatzeko eta herri bizitza indartzeko, hauentzako hilean behin ekimen bereziak antolatzea egokia ikusten da.		
Noiz hasi	2013	Noiz bukatu	Jarraia
Lehentasuna	Altua		
Aurreikusitako kostua	--	Finantziazioa	--
Ardura jarraipena/burutzea	Kultura Saila		
Oharrak	...		

LAN-TALDEA	Herri Bizitza		
Gaia	Gazteak		
EKINTZA	3.4.2. gaztelekuan ostiralero biltzeko ohiturarekin jarraitu		
Deskribapena	Gaztelekuaren erabilerarekin jarraitzea beharrezkoa ikusten da herri bizitza indartze aldera.		
Noiz hasi	2013	Noiz bukatu	jarraia
Lehentasuna	Altua		
Aurreikusitako kostua	--	Finantziazioa	--
Ardura jarraipena/burutzea	Kultura Saila		
Oharrak	...		

LAN-TALDEA	Lurralde Antolamendua		
Gaia	Ingurumena, paisaia		
EKINTZA	<p>4.3.1. Herrian zehar ibilbideak egin baserriak, harrobi zuloak, herri mugak etab. ezagutuz.</p> <p>4.3.4. Ondare natural eta kulturalaren inguruko difusioa egin: mendi irteerak eginez, erakusketak eginez, aldizkarian informazioa ateraz, etab.</p>		
Deskribapena	Garai batean egiten aziren ibilbideen antolaketa berreskuratzea ondo legoke: herria ezaugutu eta herriaren natur ondarearen dibulgaziorako. Era berean, ibilaldi hauekin batera dibulgaziorako ebste bdie batzuk erabili: erakusketa, aldizkaria, udal webgunea, etab.		
Noiz hasi	2013	Noiz bukatu	jarraia
Lehentasuna	Altua		
Aurreikusitako kostua	--	Finantziazioa	--
Ardura jarraipena/burutzea	Ingurumena Saila		
Oharrak	...		

LAN-TALDEA	Herri Bizitza		
Gaia	Parte-hartzea		
EKINTZA	8.2.1. Elkarteen sarea edo batzordea antolatu: elkarteetako ordezkariak bilduko dituen batzordea.		
Deskribapena	Herrian elkarte eta talde ezberdin ugari daude. Hauk koordinatu eta antolatu asmoz elkarteen batzordea sortu nahi da. Batzorde honek, herrian beste dinamika berri batzuk sortzeko balioko luke.		
Noiz hasi	2013	Noiz bukatu	Jarraia
Lehentasuna	Altua		
Aurreikusitako kostua	--	Finantziazioa	--
Ardura jarraipena/burutzea	Kultura Saila		
Oharrak	...		

LAN-TALDEA	Herri Bizitza		
Gaia	Parte-harzte		
EKINTZA	8.2.2. Urte osoko egitarau bateratua antolatu		
Deskribapena	8.2.1. ekintzarekin lotutako ekintza. Elkarte batzordea sortuta, egitarau bateratu bat antolatzea litzateke helburua. Ekintza bakoitzean elkarre guztietako ordezkariak antolaketan inplikatzeko litzateke egokiena.		
Noiz hasi	2013	Noiz bukatu	jarraia
Lehentasuna	Altua		
Aurreikusitako kostua	--	Finantziak	--
Ardura jarraipena/burutzea	Kultura Saila		
Oharrak	...		

LAN-TALDEA	Herri Bizitza		
Gaia	Parte-hartzea		
EKINTZA	8.2.3. Herriko talde ezberdinen arteko harremanak hobetzeko jardunaldiak antolatu		
Deskribapena	Herri berean askotane z da aldamenekoa egiten ari den lana ezagutzen. Hau ekiditeko jardunaldi batzuk antolatu daitezke, bakoitzak zer egiten duen besteei ezagutarazteko.		
Noiz hasi	2013	Noiz bukatu	2013
Lehentasuna	Altua		
Aurreikusitako kostua	--	Finantziazioa	--
Ardura jarraipena/burutzea	Kultura Saila		
Oharrak	...		

LAN-TALDEA	Herri Bizitza		
Gaia	Parte-hartzea		
EKINTZA	8.2.4. Ekitaldi parte-hartzaileak antolatu		
Deskribapena	Herri aktibo bat izateko, herritar aktiboak hezi behar ditugu. Honetarako antolatzen diren ekimen ezberdinetan herritarren parte-hartzea helburu izatea beharrekzo da.		
Noiz hasi	2013	Noiz bukatu	Jarraia
Lehentasuna	Altua		
Aurreikusitako kostua	--	Finantziak	--
Ardura jarraipena/burutzea	Kultura Saila		
Oharrak	...		